

Kataluniako “proces“, Espainian “proceso”
Joxerramon Bengoetxea (ehuGune)

Atzera begira, beharbada, prozesua ez da termino egokia izan Katalanen gehiengo zabal batek martxan jarri duen asmo kolektiboa izendatzeko. Espainiako Estatuak *proces* entzun eta *proceso*, prozesamendua ulertzen du, *procesar* aditzetik datorrena, *proceder* aditzetik beharrean. *Proces* ikusi eta autonomia interbenitu egiten du, eta bere kapritxoan arituz, Konstituzioko 155. artikulua mamua astintzen du astakeria juridiko handiagoak egin ahal izateko, kontrolik gabe; eta Konstituzio Auzitegia beti bere alde edukiko duela ziurtatuta. Jakinda, Europar Batasunean eta mendebaldeko mundu liberalean inork ez diola kargurik hartuko. Diktadurako joerak erakusten ditu Estatuak, botereen banaketa barregarri utziz, neurribarrutasuneko printzipioa erabat abandonatuz. Benetan larria.

Ez dut astakeria juridikoen zerrenda luzea osatuko. Eskatzen zaiguna bestelako gogoeta mota baita, alegia prozesu honek euskotarroi nola eragiten digun, zer-nolako ondorio edo lezio atera behar dugun etxerako. Egia esan, nahiko deseroso sentitzen naiz horrelako ariketen aurrean. Badirudi joera bat dagoela *proces* euskal eztabaida politikora ekartzeko. Agian, eztabaida partidista esan beharko nuke, iruditzen baitzait badagoela prozesu hau gure tirabira eta sesio politikoen ikur bilakatzeko arriskua. Eta gure ibilbideaz, gurea beharko lukeen ibilbideaz, mintzatu bai mintzaten garela, baina zeharka, inguru minguru, hirugarren baten interferentziaz. Azken ahotsa ETArena izan da: Katalunia kopiatzeko esaten digu, baina agiriak zertan lagun dezakeen ez dut ikusten, eta, gainera, *proces*-ari ez dio mesederik egin.

Ez dugu orain deskubrituko Espainiako Estatuak duen joera poliziala. Ezta Estatuko elite politikojuridikoek duten botereen banaketaren irudi desitxuratua ere. Edo Rajoyren gobernuaren erantzun “naturala” joera errepresiboa dela. Espetxe politika (urruntzea), epaiketarik gabeko espetxealdiak, inkomunikazioak, preso gaixoen tratamendua, graduak aurrera egiteko oztopoak, torturaren inguruan ematen diren erantzun ofizialak, Altsasuko kasua, ... Hortik, bederen, ez da leziorik izanen. Badugu eskarmenturik.

Proces honi Espainiako ikuspegitik eman zaion esanahi politiko-konstituzionala ere ez da arritzekoa. Euskadirentzako estatus berria zekarren proposamen politikoa eta Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Estatutu berriari eman zitzaion erantzunak eta Espainiako indar politiko nagusiak, PP eta PSOE, lerrokatu ziren moduak, ... errepikatu egin dira. *Deja vu!* Gugandik katalanek ez dute ondorioz atera nahi izan, euren kasua desberdina zatekeela sinisturik. Baina Espainiako kultura politikoa eta dogma konstituzionala ez dira aldatu. Harridura gutxi, beraz.

Oraingoan, baina, beste urrats bat egin dute Katalunian: erreferendum lotesle bat. Jakina, erreferendum hori konstituzioaren aurkakoa da. Beti izango da; hori nobedadea! Baina zer gertatzen da Konstituzioaren gainean demokraziaren printzipioa jartzen badugu? Konstituzio sistema Kataluniarentzat beti izango bada “espetxe”, gaztelu apurtezina, orduan, konstituzio sistema kafkiar hori saihestu egin beharko da.

Eskema horretatik abiatuta jaio da *de facto* izaera duen dinamika edo prozesua: gertakari nabari eta gaindiezinak sorraraziz. Pentsatu dute *proces* ezin izango duela inork gelditu: arrazoi demokratikoaren tsunamiari ezin izango diola Espainiako Estatuak aurre egin lege formalaren indar gordinaz. Herria mobilizatuko da eta baietak irabazten duenean aho batez independentzia aldarrikatuko da. Hau da eskema: gogoak agintzen du asmoaren gainean eta arriskuak gutxiesten dira: *gura izatea ahal izatea da!* Gainera, ikuskera horren arabera, Europako Batasunak eta mundu demokratikoak ez du inoiz ulertuko eta onartuko *proces* geldiarazteko Espainiak indarra erabiltzea.

Urriaren 2an ikusiko dugu. Ez naiz iragarle eta ez dakit zein puntutaraino prest egongo den Kataluniako gizartea Estatuko indarrei aurre egiteko, euren gogoari eusteko. Pertsonalki sinesten dut katalanek herri bat osatzen dutela, *demos* bat, eta badutela euren status politikoaz erabakitze eskubidea. Horregatik, hemen, Gure Esku dago-ren *manifak* sustatu ditut. Baina garbi ikusten dut, aldi berean, Espainiako indar politiko nagusiek ez dutela hori onartzen, ezta onartuko ere. Konstituzioa ezin izango dela aldatu edo modu desberdinean interpretatu, hori bideratzeko, eta Katalunia “derrigortuta” egongo dela konstituzio sistema horretan jarraitzeko.

Beharbada, Espainiako Estatuak legalitate juridiko-konstituzionala besterik ez du izango Katalunian, eta Euskadin. “Zapaldurik” dauzkan bitartean, Espainian legitimazio handia hartzen duelakoan dago: botoak erruz. Baina Estatuak zilegitasuna aspaldian galdua du. *Proces* prozesatu dezake, baina katalanen gehiengoaren burua eta bihotza galdua dauzka. Eta badirudi Estatuko elite politikoei bost axola zaiela hori.

Karl Schmitten arabera, subiraua da “salbuespena” ezar dezakeena. Subiraua dela frogatzeko asmotan, Espainiako Estatuak Katalunian salbuespena ezarri du. Oso zaila izango du, orain, atzera egitea. Euskadin bagenekien, baina Katalunian orain ikusten ari dira. Kalitate demokratikoaren kaltetan, denon kaltetan.